

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urtarrilaren 20a / VI. urtea / 162. zenbakia



Pantxo Purroy, Ekuadorreko Amazonas ibaian egindako espedizio batean.

Espainiako Ornitologi Elkartearen (SEO) 1956an sortu zen hegaztien babesaren eta ikerketaren bultzatzaile gisa. Bere lana lau zutabetan —ikerketak, hezkuntza, garapena eta kontserbazioa— zatitzen duen elkarte honen lehendakaria bere gain hartu zuen orain dela sei urte Pantxo Purroy biologo nafarra. Zoologian katedraduna, Leongo Unibertsitatean da egun

Lagun ikustezina

Aldegin du. Despedida tenorean ez du hitzik egin; lagun ikustezinak apenas mugitu duen okotza eta irribarre bat entseiatu du lekutu baino lehen. Kolore biziko paperez bildutako pakete bat zeraman eskutan. Paperari atxekia metala preziatuen diridira imitatu nahi duen lazo ttipi bat eta horren gainean eranskailu bat: 'Zorionak'.

Arin urrundu da. Nahita ere ezingo luke erritmoa makaldu, egun gehiegi izan baitira batetik bestera sosegurik hartu gabe; jira asko eman behar izan ditu bere burua madarikaziotik libro ikusi

duen arte; hainbat ordu beste baten aurpegiaren irudia gogotik kendu ezinean, gutxitan bisitatzen dituen denda finenen laberintoan galduta, galdera beretsuak errepikatuz, finean edozein hurbilketa ariketak eskatzen duena beteaz: jeneroa, estiloa, tonua, urrina, prezioa...

Dendari zuhurrak ez du aise etsitzen, inoiz baino goxoago galdetzen du. Badaki tentuz jokatu behar duela, denda mamu elektriko bezalako aukerak, aski dela edozein purrestada botatzea bezalako aukerak. Ez du saltzaile lotsagabeak bezala argituko afera: 'Zenbatsu gastatu nahi duzu?'. Ez

Artzaren arrastoaren atzetik

irakasle. Txikitatik sortu zitzaion naturarekiko zaletasuna eta egun, hegaztien babesaren eta kontserbazioaren alde egiten du lan. Hala ere, sona handiko elkartearen presidentea izateagatik baino, hartzen inguruan egindako lanari esker jaso du azken aldiotan izenak Purroyk. Egun, hartzaren iraunbizipena Nafarroan ziurtatzeko egitasmoarekin dago lanean.

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



du patxada galduko, ez dio ikustezin bezain ahula dela esango. Milaka begi, ahots eta zeinu dituen lagun ikustezinaren aurpegi estutuari erreparatuko dio, deskribapenak eta xehetasunak eskatuko dizkio, eta eskua bizkarrean jarrita poliki bukatuko du jeneroa ikus dezan, 'arazo larriak dituzu eta nik daukat zuk behar duzuna' senti dezan.

Diskrezioak ere ez du gutxi balio. Saltzaileak aurrez jakin behar du noraino iritsi daitekeen. Galdetaren buruan lagun ikustezina 'ez dut ongi ezagutzen', 'ez dakit zer duen gogoko', edota 'berdin dio, bost mila pezetako edozer gauzarekin konforme naiz' aitortzera eramaten duen

dendariak ez du dotorezia handirik erakusten, eta bezero otzan bat galtzeko erarik segurua da. Saltzaile onak sentiaraziko dio kezka garaia amaitu dela, bere ahalegina ez dela alferrikakoa eta neurrian ezagutuko dutela, behar bezala jokatu duen edonori zor zaion moduan.

Egun seinalatua iritsita lagun ikustezin batek besteari begiratzeko dihonean, Marcel Marcearen ispiluan baileude: 'Ez naik berriz harrapatuko', bota nahi lioke (eta begietan irakurtzen balekitez hori ulertuko lukete), ordea 'hire gustokoa izango delakoan' ateratzen zaio hortzak karraskatzen dituen bitartean. Orduan 'Urte berri on', 'Heldu den urte ate' bihurtzen da.

GURE AUKERAK

ZINEMA

'Yanco' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den ostegunean, urtarrilak 26, Iruñeko Olite zineman. Nafar Ateneoak Zinema Mexikarrari buruz antolatutako duen zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarreak 350 pezetan salduko dituzte eta bazkideak dohainik sar daitezke.

'Hasta el fin del mundo' Win Wenders zinemagile alemaniarren pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, hilak 24, Iruñeko Olite zineman. Cine Club Lux-ek antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, eta sarreak 350 pezetan salduko dituzte.

ERAKUSKETAK

Pablo Uranga artistaren erakusketa zabalik dago Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoa. Ikusteko ordutegia goiz eta arratsaldekoa eta otsailaren 5a arte iraunen du.

'Sukaldeko artea' izenburuko erakusketa ikusgai dago Iruñeko Jai-Alai jatetxean. Bertan, Luis Araujo, Juan Zia, Santiago Zia, Pilar Garcia Escribano, Arturo Garcia, Isidro Lopez Murias, Rafael Ubani, Ines Zudaire eta Javier Viscarret artista naparren margoak ikus daitezke, guztiak sukaldaritzarekin zerikusia dutenak.

BESTELAKOAK

'Historia del Zoo' izenburuko antzezlanaren taularatuko dute gaur ostirala, urtarrilak 20, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Antzerki Eskolako taldeek Zizur Nagusian. Herriko Udal Patronatoak antolatuta, Kultur Etxean izanen da, gaueko 10.00etatik aurrera.

Maddalen Lujanbio, Andoni Egaña, Iñaki Murua, Manolo Arozena, Unai Iturriaga eta Sebastian Lizaso bertsolarien saio berezia izanen da igande honetan, urtarrilak 22, Leitzan. Herriko Batzordeak antolatuta, Inauterietako Jaialdi berezia burutuko dute, arratsaldeko 6.00etatik aurrera herriko zinemaren aretoan.

'Mexiko: tarahumara indioetatik maia indioetara' gaiari buruzko proiektzioa izanen da gaur ostirala, urtarrilak 20, Iruñean. Nafarroa Kirol Elkarteak antolatuta, Jose Mari Izcoek zuzendu eta bideratuko du emanaldia, arratsaldeko 8.00etatik aurrera. Elkar-teak Jarauta kalean duen egoitzan izanen da.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Leo Calvo, maite zaitut

Leo Calvo, Txantreako lehoia, Iruñeko karrketan dabil aske duela aste-bete. la Unica peñaren egoitzan hamar urte luzez egon da zintzilik bere argazkia. Orain, bere kideek hormatik kendu ahal izan dute, zorionez.

urte, ia hamaika, Estatu Espainiarreko hainbat kartzelatan eman ondoren aske utzi dute.

Joan den igandean, 3. graduan gauden intsumituok Leo genuen aipagai bakarra. Barruan egun gutxi batzutan ezagutu ondoren zaila zitzai-

tera Iruñeko espetxeko patioan korrika egin. Pozten naiz. Saiatuko naiz hala ere bertze norbait engainatzen. Bien bitartean, Leo karrikan noiz topatuko zain nago. Reserbako errioxako ardoaren antzera, aspaldi daukat gordeta bihotzean, emanen dio-



Iruñeko espetxera sartu nintzenezan ikusi nuen lehenengo aurpegi ezaguna izan zen Leorena. Azken aspaldian giltzaperatuak izan garen intsumituok nekez ahan-tzi ahal izanen dugu Leo. Edozein unetan gure jakin-mina asetzeko prest zegoen Leo kartzelan. Pertsona zintzo eta osoa. Sekula ikusi du-dan bizirik ederrena. Hamar

gun bere irudia ahaztea. Kartzelan zegoela, egitasmo berezia zeukan Leok karrikara irtetzerakoan: ahuntzak erosi eta mendira joan bizitzera. Ez dakit asmoa beteko ote duen. Behar bada, karrikako giroa eta bizitzaren abiadaz konturatzekoan, bertan behera utzi du ametsa.

Ezin izanen dut martxoaren hasieratik berarekin ba-

dan besarkada.

Bertze besarkada batek segitzen du bodegan. Mikel Zumarraga, Iruñeko espetxeko helduen moduluan dagoen bigarren preso politikoari dagokiona.

Hilabete eskas duzu hortik irteteko Mikel. Eman nahi dizudan besarkadak gustu mingotsegia izanen baitu itzalpean.

ASTEKO PERTSONAIK



Patxi Zabaleta
HBko parlamentaria

Patxi Zabaleta HBko foru parlamentariak uko egin dio maiatzeko hauteskundeetan zerrendaburu izateari. Leitzako abokatuak arrazoi pertsonal eta politikoetan oinarritu du erabakia. Bere ustez, ezker abertzaleari egin beharreko aportazioak egiteko egoera egokiagoan egongo da zerrendaburu ez izanda. Hala ere, HBn segituko duela eta Adolfo Araizen kandidatura gogoz bultzatuko duela adierazi du, zerrenda berean aurkezteko aukera baztertu gabe. Zabaleta kritikoa azaldu izan da HBren jarrera ofizialekiko eta talde abertzale honek eztabaidarako aurkeztu berri duen idatziarekin ere ez dago erabat ados. Dirudienez desadostasun horiek izan dute eragina ardura postuei uko egiteko erabakian.



Oscar Insausti
Pilotaria

Faboritoak ez izan arren, Oscar Insausti eta Ricardo Garridok irabazi zuten joan den larunbatean Euskadiko lehen mailako pala txapelketako finala, Bilboko Deportivo pilotalekuan jokaturako partiduan. 45-40 irabazi zieten Arribillaga-Langarikari neurketa txukuna jokatu ostean. «Partidu serioa egin dugu», zioen Insausti amaieran, eta finalera maila onean heldu dela gaineratu zuen, izandako lesioaren eta arazo guztien ostean. Profesionaletan denetik lehen titulu ofiziala du, beharrezkoa bestalde iruindarrarentzat, batez ere segurtasuna eta konfiantza hartzeko. Nafarra eta errioxarra arazo handirik gabe nagusitu ziren partidu guztian eta amaieran, gazteagoak izan arren, serio-tasuna erakutsi zuten.

AHAZTU GABE!

FESTAK



Lakuntzako neguko jaiak ospatzen dira asteburu honetan, San Sebastian herriko patrioiaren omenez, urtero bezala. Ospakizunak atzo hasi baziren ere, gaur da berez egun handia, goizeko 6.00etan aterako diren auroroek jakitera emanen duten moduan. Ondoren, santuaren basilizara abiatuko dira herri-tarrak, eguerdian meza ospatuko baita bertan. Ateratzerakoan ohikoak diren 'piperopilak' eta txistorra banatuko da, musikaren animazioarekin. Arratsaldeko 6.30etan 'alkate-dantza' dantzatuko du herriko taldeak plazan, gero Joselu Anaiak musika taldeari lekua utziz. Goizaldera arte luzatuko da berberena, horretarako espreski karpa jarri baitu udalak herriko plazan. Larunbat eguerdian gazta eta ardoa banatuko da udal-tertxean eta arratsaldez Orritz dantza taldearen emanaldia izanen da, herriko plazan. Ondoren eta goizaldera arte, Jator taldea ariko da jo ta ke musika jotzen. Igandea izanen da azken eguna. Eguerdiko meza nagusian Andra Mari abesbatzak kantatuko du eta ostean Ciclon musika taldearen emanaldiarekin bukatuko dira aurteko festa txikiak.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8


Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritzaz, ohiturak...



HERRIZ BERRI



Arakil-Hiriberri



Suak Sakanako punta batetik bestera ikusi ahal izan ziren joan den larunbatean.

Su-keinuak komunikatzeko

AMAIA AMILUBIA / ALTSASU

Iragan larunbatean, su keinu bidez komunikazio saikera bat egin zen Sakanan. Lau su-leku aukeratu ziren eta bakoitzean bizpahiru lagun zeuden. Ilunabarrean, aurretik adostaturiko denbora eta kodigoari jarraituz, su-lekuak banan-banan piztu ziren aintzinean egiten zenaren itxura eginez. Froga arrakastatsua izan zen, Sakanako punta batetik bestera, mezuaren igorketa minutu eskas batean egitea lortu zuten eta.

«Gure asmoa urtezahar arratsan egitea zen, baina eguraldia kaskarra izan zen eta larunbat arte itxaron behar izan genuen», azaldu du Juanjo Armendariz Hiriberritarrak. «Asteburuko eguraldi ona egin behar zuela ikusirik larunbatean egitea erabaki genuen». Aurretik froga batzuk eginda bazituzten ere, larunbatean bertan partehartzaile guztiak Hiriberrin elkartu ziren, ordulariak sinkronizatzeke eta azkeneko froga egiteko. Simulakroa arratsaldeko sei t'erdietan puntuan hasiko zen, eta su-leku bakoitzak hiru garraldi egingo zituen. Horrela, sei t'erdietan, lehen su-lekutik, Otzaurteko Gazteluberritik hiru suparraldi egin eta gero Beriain azpiko Ondatzeko su-lekutik erantzuna jasoz zuten, eta Bi Ahizpetako Axitako su-puntutik hiru garraldiak ikusi ziren. Segidan Urritzola eta Iltzarbe artean dagoen tontorretik, Gaztelutik, hiru sugarraldi ikusi ziren. Lehen igorketa bu-

katua zegoen. Handik hiru minutura erantzuna igorri zioten elkarri, Gaztelutik hasita Gazteluberriraino.


Partehartzaileek aitortu dutenez, eguraldia garbi-garbia egonda ere suak ez ziren ikusten, sugarraldiak egin arte. Baina sugarraldiak arras ongi ikusten ziren. Gaztelukoa Gazteluberritik garbitasun handiz ikusten zen, 30 kilometrotara egonda ere.

Sugarraldia gasoleoren bidez egin zuten, baina agian aurreantzean aitzinean egiten zuten egur ikatza, erresina, azufre eta salitre nahasketara hurbiltzea egokiago izanetan litzateke, hain sustantzia kutsagarria (gasoleoa)

erabili ordez.

Froga hauek egiteko Rafael Karasatorreren 'Zeinu dorreak' izenburua duen lanean oinarritu dira. 1854. urterako Sakanan hainbat dorre eraiki ziren telegrafia optikoa sistemaz mezuak igortzeko. Horrelakoak dira Ziordiko 'El telegrafo' izenaz ezagutzen den dorrea, Altsasuko Basoluzeko dorrea, Dorreandi eta Dorretxiki... eta beste batzuk, eskualde guztian zehar. «Konprobatzeke dago oraindik dorre horiek egiteko, aintzinean (Erdi Aroan) erabiltzen ziren lekuak edota materialetan oinarritu ziren XIX. mendeko dorre hauek egiteko», idatzi zuen Rafael Karasatorre Etxarri-Aranazko historiagileak. Guztia dago aztertzeke eta Rafael berak idatzi zuen hori guztia toponimiatik, keramika hondarretatik edota idazki zaharretatik atera daitekeela.

Horrelako toki asko daude Sakanan, Rafael Karasatorreren ustez: aipatu 'El telegrafo' Ziordin, Gazteluberrin Otzaurten, Dorreandi, Dorretxiki, Barga (Basoluzeko dorrea), Gaztelu, Gazteluzar, Gaztelukobarpa, Kaxarna (Arbizu), Axita (Etxeberri), Gaztelu eta Kaxarna (Irurtzunen): «Aintzinean, gure arbasoek ez zuten bakarrik nekazaritzaz eta abeltzaintzaz arduratu behar, adi egon beharra zeukaten Agurain eta Lazkaoetik heltzen ziren lapurrekin ere. Herri batetik bestera alarma helarazteko dorreak eta gazteluak eraiki zituzten orduan».



Mendietan egiten omen ziren su garraldiak.

Zangoza

Sansebastianak atzo hasi ziren

ZANGOZA

San Sebastianen omenezko jai txikiak ospatzen ari dira egunotan Zangozan, asteazkenean hasi baitziren Kultur Etxean proiektatu ziren diapositiba eta bideoarekin, baina gaurtik aurrera izango da herriko talde kulturalak osatu duten egitarau erakar-garriaren parterik sendoena. Gaur egingo da, San Sebastianen omenezko prozesioa, goizeko 11.30etan, eta, ondoren, Santiago Elizan, meza nagusia izango da. Bertan egongo dira, ohi bezala, Udal osoa, Musika Banda, Kiliki eta erraldoien konpartsa, eta Rocamador dantza taldea.

Arratsaldean, Mongaletik aterako da Erraldoi Txikien konpartsa, eta herriko karrika guztiak zeharkatuko ditu. Konpartsa hau 8 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek osatzen dute. Arratsaldeko zazpi t'erdietan merienda izango da denentzat Las Arcadasen, eta txorizoa, ogia eta ardoa banatuko dira. Ondoren, dantzaldia, zezensuzko eta txarangarekin kalejira izango da, eta gauerdian rock kontzertua Batasuna Peñan, bertako Picarazas taldearen eskutik.

Larunbatean ere ez da faltako animazioa, eta arratsaldeko 5etatik 7etara bitarte, haur joakoak izango dira. Ondoren, Baztango dantza taldeak eskainiko du emankizuna. Zezensuzkoaren ondotik Jarauta 69 txarangak alaituko du giroa, herriko tabernetan zehar, eta ondoren herri afaria izanen da bertan, txarangak berak alaiturik.

Igandean erraldoi txikien konpartsak herriko karrikak zeharkatuko ditu, eta arratsaldean entzierroa izango da kale nagusian. Ondoren txololatea banatuko da haurren artean, eta dantzaldiaren ondotik, agur esango zaie jai hauei, 21.30etan kantatuko den 'Pobre de mi-arekin'.

LAKUNTZAN DANBORRADA GAUR Lakuntzan ere jai handia izango dute hiru egun hauetan, atzo arratsaldeko zazpitan jaurti baitzen itxafuroa. Atzo gauerdian ospatzekoa zen, hain zuzen ere, danborrada, Lakuntzako Pertzak elkarrekin antolatzen duen ekitaldia. Txuriz jantzita, hainbat lakuntzar ariko ziren kalez kale doinua ateratzen danborrei ezezik, pertza, kaxola edo makilei. Gaur izango da egun handia, goizeko sei etatik aurrera kantatuko diren auroekin. 11etan aterako da udal korporazioa udaletxetik santuaren ermitaraino, trikitixek lagundurik, eta meza nagusiaren ondotik, eguerdian, txistorra, ogia, ardoa, txokolata eta piperropilak banatuko ditu udalak.

Pantxo Purroi, txoriak eta hartzak



EDURNE ELIZONDO / LEON


Pantxo Purroy orain dela 48 urte jaio zen Iruñean. Egun, Leonen bizi da, bertako unibertsitatean irakasle baita zoologiako katedra eskuratu zuenetik. SEOko (Espainiako Ornitologi Elkarte) lehendakaria da orain dela sei urtetik. Natura eta hegaztiak, ordea, txikitatik erakarri dute eta hasieran zaletasuna baino ez zena, lanbide eta bizimodu bihurtu du. Madrilen burutu zituen biologia ikasketak. Amaitu bezain laster, Pirinioetako basoetako hegaztiak buruzko tesia egiteko beka eskaini zioten. Aukera horri ez zion ihes egiten utzi eta halaxe lortu zuen Madrilgo Unibertsitate Konplutensean irakasle postua. Ondoren Madril uzti eta Oviedoko Unibertsitatean izan zen irakasle, harik eta Leonera joan zen arte.

Leongo zelaiak lekuko eta zeruan txoriak zelatari, SEOrri eta bere lanari buruz mintzatu da Pantxo Purroy EGUNKARIAREKIN. SEOk egiten duen lanari buruz zehatza da nafarra: «Bestelako talde ekologista batzuek eremu zabala eta hainbat gai jorratzen dituzten bitartean, SEOrren helburua hegaztien defentsa eta ikerketa da». SEO 1954. urtean sortu zen, hegaztien ikerketa eta babes bultzatu nahi zuen lagun talde baten eskutik, eta egun 3.500 kide inguru ditu elkarteak. Nazioarteko BirdLifeko ordezkari da Espainian. SEOrren iritziz hegaztiak dira kontserbazioaren sinbolo eta horregatik dira bere abiapuntu eta ardatz. «Ikerketak, kanpainak, txostenak egiten ditugu» azaldu du Purroyk, beti ere arrisku bizian dauden hegaztiak lehentasuna emanez. Arrisku hori nola ekidin ere gure helburuetariko bat da, noski. Askotan, gainera, ekintza zehatzak sekulako neurri orokorrak baino askoz eraginkorragoak dira. Horren inguruan bada ekologistek askotan ahotan darabilten esaera: «Orokorrean pentsatu eta tokian tokiko ekintzak burutu».

Gaur egun, tamalez, ekintza asko egin beharko lirake hainbat hegazti motaren bizi-baldintzak egokienak izateko. Pantxo Purroyk, adibidez, hegazti migratzaileen arrisku latzenak aipatu ditu. «Ehiztariak dira, zalantza izpirik gabe, hegazti migratzaileek duten arriskurik latzena. Europako Batasunaren barruan, Espainia, Frantzia eta Italia dira hegazti gehien hiltzen duten estatuak. Hegazti mota batzuek, jada, jasan ahal duten heriotzaren mugan daude. Bestela ere, hegaztiak gustuko eta beharrezko dituzten eremu edo inguruak eraldatzen, eta batzuetan desagertzen ere ari dira. Ibaiertzak eta zalduek adibidez, oso inguru aberatsak dira bidean diren hegaztientzat. Egun, ordea, basotxo eta sasitardeen ordez burdin-hariak dira zelai ertzetan nagusi. Nafarroan ere nabarmena da joera hau, Ultzama eta Baztan aldean, besteak beste».

Pantxo Purroyk sei urte daramatza Espainiako Ornitologi Elkarte (SEO) buru. Iruñean jaio arren, haurtzaroko urte gehienak Beran pasatu zituen eta biologo honi bertan sortu zitzaion naturarekiko miresmen eta jakinmina, eta ikasketak egin eta hegaztien mundua aukeratu zuen azterketarako. Zeregin nagusia hori izan badu ere, hartzen inguruan egin dituen ikerketengatik jaso du nafar honek sona handiena.

Pantxo Purroy, txoriak maite



Pantxo Purroy Iruñean, Gabonetan.

JOXE LACALLE

Ehiztariak dira, zalantza izpirik gabe, hegazti migratzaileek duten arriskurik latzena. EBren barruan, Espainia, Frantzia eta Italia dira hegazti gehien hiltzen duten estatuak.


Gizakien jokabidea, azken finean, hezkuntzaren bidez alda daiteke agian, baina behin ingurugiro osoa hondatu ondoren benetan zaila da lehengoratzeko».

Biologo nafarraren hitzetan, jendeak, gizarte osoak, hegaztien egoera zein den jakin eta ulertu behar du eta jakin bakoitzak bere etxean gauza asko egin ditzakeela. Europako Batasunak ere, adibidez, laguntza agroambiental jarri ditu martxan, hau da, ohiko landaketak bultzatzen dituztenek sariak jasoko dituzte. «Honek mesede handia egin diezaieke hegaztiak», dio Purroyk.

Ekologista nafarrantzat, dudarik gabe, ingurugiroaren eraldaketa da hegaztien arazorik latzena. «Gizakien jokabidea, azken finean, hezkuntzaren bidez alda daiteke agian, baina behin ingurugiroa hondatuz gero, oso zaila da lehengoratzeko. Hegaztiak neurri batean badute euren ohiturak aldatzeko gaitasuna, baina ingurugiroaren eraldaketa eremu geografiko zabalean gertatzen bada, kaltea konponezina izan daiteke. Hain zuzen ere, gaur egun hainbat hegazti mota arrisku bizian dago, eperrarra, besteak beste. Espezie honen desagertzea oso kaltegarria izango litzateke, baita beste edozein ere, gauza guztien artean harreman estua baitago. Arrisku honetaz jabetzea oso garrantzitsua da. Hezkuntza, beraz, guztiz premiazkoa da, nire ustez, ekintza zehatz eta sinpleena ere funtsezkoa izan baitaiteke zenbait hegaztientzat. Gizarte bakoitzaren bizi maila, hala ere, kontuan hartu behar da. Ez du inolako zentzurik, jatekorik ere ez duen norbait Amazoniako zuhaitzak bota ez ditzala eskatzea».

Europako Batasunak Itoizko urtegiaren aurkako kexa artxibatzeko erabakia jakinarazi du orain dela denbora gutxi. SEO, urtegiak ingurugiroan eragingo litzuzkeen kalteak aztertu ondoren, Itoizko urtegiaren eraikuntzaren aurka azaldu da publikoki. Pantxo Purroyk polemika honi buruz duen iritzia eman du. «SEO urtegiaren aurka dago erabat eta gure argudio nagusia ZEPAk edo Hegaztientzako Babes Berezirako Zonak dira. Nafarroako Gobernuak, nolabait, negoziazio moduko bat proposatu zigun, erranez, hau urez beteko dugu baina trukean beste hura babestuko dugu. SEOk nolabaiteko negoziaketa hori ez du onartu, inguru horiek ZEPA izendatu badira, naturarik aberatsena duten lekuak direlako izan baita, beraz, hori da lehentasunez babestu behar dena eta ez beste zerbait. Kontsekuente izateko garaia da, behingoz. Hidrologi Plan Nazionalak ere, ura aurrezteaz arduratu aurretik, urtegi handiak diseinatu ditu. Ura amaitu egiten dela gogoratu behar dugu, noski, baina ez dugu hori aitzakiatzat hartu behar edozein proiektu justifikatzeko. Urtegiaren planteamenduan ere ez dago seriotasunik eta Itoitz bezalako proiektu bat diru asko kostatzen da».

Pantxo Purroi, txoriak eta hartzak



nuen lepokoaren bidez eta berriro basora itzultzeko eskatzen zigiten. Mito eta istorio asko dago hartzen inguruan, egia erran. Batzuen ustez, adibidez, hartzek, haserre daudenean, harriak botatzen dizkiote jendeari. Beste askok ere 'Salsero-ri' lepokoa hiltzen zenean aurkitu eta ilea kentzeko jarri geniola uste zuen.»

HARTZ BAKARRA NAFARROAN Kantauriko Mendikatean dauden hartzei buruzko datuak ere lortu zituzten ikerketa hartan. Emaitzak, ordea, ez ziren oso positiboak izan Pantxo Purroyk azaltzen duenez. «Guztira 60-70 hartz inguru dago mendikate osoan. Nafarroa eta Huescan, berriz, hartz bakarra edo gehienez bi daude eta hauek, batzuetan, Iparraldeko basoetara aldegiten dute. Hartzek duten arriskuatariko bat ezkutuko ehiza da. Hartz asko pozoituta hil da. Pozoia otsoen aur-

Gaur egun, Nafarroan eta Huescan hartz bakarra edo gehienez bi daude, eta askotan Iparraldeko ibarretara igarotzen dira».

E. E. / LEON

Nafarroako azken hartza

Pantxo Purroyk, SEOko beste kideekin batera, liburu eta ikerketa ugari egin ditu —'Gure zelai eta basoetako hegaztiak', 'Ehizarako hegaztien identifikazioa'—, hegazti mota jakinei buruzko ikerketak eta abar. Egun, Espainian umatzen diren hegaztien atlasa osatzen ari da SEO elkarteak.

ikertzen genituen eta baita beste hartzekin zituen topaketak ere. Batzuetan bere mugimenduak oso zabalak ziren eta galdu ere egiten genuen. Abioneta alokatu genuen behin arrastoa jarraitu ahal izateko. Hiru urtetan 2.500 kilometro karratuko eremuan zehar ibili zen, Leon, Palentzia eta Santander osoan, ia-ia. Behin

beste bi hartzekin egin zuen topo, bata arra zen eta emea bestea. Arrak buruko ilea hori-horia zuen eta horregatik jarri genion 'Ilehori' izena. Arrek borroka egiten zuten emearengatik. Baina handik denbora batera hilik agertu zen 'Ilehori', ehiztari batzuek tirokatu egin zuten. Iskanbila handia sortu zen, ehiztariek

euren burua salbatzeko hil zutela erran zuten baina hartzaren gorpua ikusita, begi-bistakoa zen gezurretan ari zirela».

Arazo ugari sortu zizkien 'Salsero-k'. «Erlauntza batzuk suntsitu zituen mendi magalera jaitsi zen batean eta bertako jendeak guri egotzi zigun errua. Beren ustez hartza guk gidatzen ge-

ka jartzen dute hildako animalietan ezkutaturik eta hartzek animalia horiek jan eta hil egiten dira. Basoen egoera beste arazo larri bat da. Hartzak harizti eta pagadi lasaiak ditu gustokoak. Baina inguru horietan ari dira eraldaketa gehien gertatzen, errepideak edo zuhaitz mozteak direla eta».

SEOko lehendakariaren hurrengo proiektuak ere hartzak izango ditu protagonista, LIFE proiektuaren jarraipena egingo baitu beste kideekin batera Urralegiko bailaran, Nafarroan. Proiektu horren barnean, Urralegiko hainbat basotan ez da egurririk moztuko datozen 25 urteetan. Lurren jabeek dirusariak jasoko dituzte trukean. Pirinioetako hartzei buruzko informazio kanpaina ere martxan jarriko dute eta Erronkarin Pirinioetako naturari buruzko zentroa zabalduko dute. Biologo nafarrak proiektuaren garrantzia azpimarratu du: «Nahiz eta Nafarroan bi hartz edo bakarra geratu, guztiz beharrezkoa da berreskurapen prozesua martxan jartzea eta horixe da proiektu honen xedea. Hartzaren babesak erakundeen helburu eta betebeharra izan behar du, Espainiako Estatuan arriskuan dauden espezieatariko bat baita. Beraz, elkarte autonomo bakoitzak martxan jarri behar du berreskurapen prozesua. Horixe egingo dugu, hain zuzen ere, Nafarroan».




Hartzak da Iberiar Penintsulan arrisku handiena duen ugaztuna.

J. ELOSEGI

Lepokoari esker hartza non zegoen bazekiten, baita noiz mugitzen zen eta noiz zegoen geldirik ere. «Gustoko zituen lekuak eta bere mugimenduak



XAKEAN



Nafarroako taldekako txapelketan, maila nagusira igotzeko sustapenaren joaneko neurketako partida. 1995eko urtarrilaren 14an jokatu.

Xabier Rubio, 1.760 ELOkoa (Tuterako Santa Ana)—Bittor Labairu, 1.895 ELOkoa (Iruñeko Arrano Elkarte).


1.e4,e6; 2.d4,d5; 3.Zc3,Zf6; 4.Ag5,Ae7; 5.e5,Zd7; 6.Ae7,De7; 7.f4,c5; 8.Zf3,0-0; 9.Zb5,De8; 10.Zd6. Lauki horrek goxokia ematen du. Baina aterabide gutxi du zaldiak. 10...f6; 11.c3,Db6; 12.Dd2,Zc6; 13.Ad3,f5; 14.Ab5,De8; 15.0-0,d4; 16.Ac6,c6; 17.Zd4,Db6; 18.Eh1,Zc5; 19.b4,Ze4; 20.Ze4,f-e4. Zaldien trukeak peoi horren arriskua sortu du, 'pasatua' dago eta. 21.a3,c5; 22.Ze2,Aa6; 23.fG-e1,aG-c8; 24.aG-c1,Gf7; 25.g3,fG-c7; 26.Zg1,b5; 27.c-b5,Gc1; 28.Gc1,Gc1; 29.Dc1,Ac4. Ederki beltzak! Ikus Koadroa. Zutabea bilatu, ireki, piezak aldatu, eta alfilak damari bidea itxi. Horrez gain, bi peoi pasatuta daude.

30.Dc3,Df2; 31.Zh3,Df1 xa; 32.Zg1,De3; 33.De3,Ae3. Egina dagoela dirudi. Txuriek ez dute erraz men eginen. 34.Eg2,d4; 35.Ef2,Ef7; 36.Ee1,Ee7; 37.Zh3,e3; 38.Zg5,Ac4; 39.Zf3,d3; 40.Zd4,Ad5; 41.a4,Ag2; 42.h4,Ah3; 43.b5,d2 xa; 44.Ed1,Ag5 xa; 45.Ze2,Ed7; 46.a5,Ec7. Txurien zoritxarra: Jokatu behar izateak galtzea dakar. 47.a6,Eb6; 48.f5,Af5; 49.Zc3,Ad3. Txuriek amore eman zuten. Huts handirik ez, baina zaldia apika gehiegi joan zen aurrera.

Balboaren heriotza

Balboa izan zen nere bizitzan aztarna handiena utzi zuen zakurra. Nire osaba Jose Luisek eta biok aurkitu genuen basoan galdurik maiztako egun argitsu eta lirain batean. Osaba 'Ozelui' izan zen hura ikusi zuen lehenengoa (basakatuaren begiak dauzka nere osabak), eta gero neri deitu zidan lehoien hizkuntzan (sekulako erroa bota zuen).

Gero segundu gutxitan gertatu zen




Raul Navarro

(BARAÑAIN)

noa zeharkatzen duen harribide bat pasatu ondoren sarrera dago. Leku horretan izan zen zakurra utzi genuen lekua. Izeba jeitsi zenean gurutze santuaren seinalea egin zuen eta ziztu bizian igo zen goiko pisura bainuan dagoen botikin zaharra hartzera, baina dena alferrik izan zen.

Bere izena koilare berri batetik zintzilik zegoen: zilar kolorezko domina batean zegoen idatzita 'Balboa', Rockyren filmetako pertsonairik nagusienaren ohorez. Koilarea kendu zionean, bost zentimetrotako urradura odoltsua ageri



guztia: oihua entzun nuenean, osaba zegoen lekura joan nintzen, eta han zegoen, lurrean etzanda, hilik egongo balitz bezala. Gehiago pentsatu gabe, nere osabak hartu zuen eta biok, ahal genuen bezala, etxera eramanez genuen.

Nere izeba-osaben etxea, herriko mui-

zen gure begirada harrituaren aurrean.

Gure zakurra han zegoen, lurrean. Mugitu gabe eta arnasik hartu gabe. Hilik zegoen. Hain handia den izakia lurrean zegoen hilik. Ezin nuen ulertu, eta hura izan zen betirako markatu ninduen momenturik tristeena...

Noiz hilgo gara?

Galdera: Plan de pensiones delako hori egiteko asmoa dut. Hala ere dakit gazteegia ez ote naizen gaurdanik pagatzen hasteko. Mediku dotore txit gorena, badago jakiterik noiz hilgo garen?

Erantzuna: Finlandiako futbol-selektzionatzaileak Pele-z esan zuena gogoratuko dizut. Galdetu zioten zenbat markatzaile jarri behar zizkion Peleri. Eta honek esan zuen ez ziola ezta bat ere jarri behar, hobe baita basapiztia ez iratzartzea. Barruan daramagun basapiztia esnatzen saiatzen baldin bazara, esnatzeko arriskua daukazu. Ikusi bestela zer gertatu zitzaion Berako Martin Indaburu poeta metafisikoari. Amets egin zuen Herioarekin mila zortziehun lauetan hogeita hamar urteko

Urriaren hamabian, eta beranduago bazen ere, hilabete horretan hil zen.

Galdera: Iruñeko gizon promiskuetako promiskuena nauk. Neurritz arras kanpoko promiskua alegia. Gau bateko ostatueta bizi nauk, hoztu berriak diren ohatzeetan barna, gorputzik gorputz. Amodio hilezko hori ezagutzeko irrikitan nagok, sikira etxe bat izateko eta nire aparaxoak utzi ahal izateko. Patologiaren bat ez da izanen nere kasua, ezta?

Erantzuna: Hasteko esan behar dizut, kontsulta honen helburua Zientzia denon adimendura jaitzea dela, hau da, etxeratzea Unibertsitate eta Laborategietan jakina dena. Horrexegatik da nire



Arimaren misterioak
arimarenak dituk,
baina zorionez edo
zoritxarrez ezinbestean
gorputzetan
irakurtzekoak.

hizkera bera ere pertsona edozeinek endelegetzeko modukoa. Badaikit berorika dela ohizko tratamendua medikuarekiko; hala ere, lehorregia iruditzen zitzaidanez, zuketan egiten ditugu har-emanak. Hiketan egin genezake, bai, baina kontutan har ezazu konfidantza haundiko solaskide hori hondarrean zientzia gizon prestu bat dela, ez herri edozeinetan aurki dezakezun belargizon tratante bat. Erranak erran, hire kasua. Amodioaren misterioak arimarenak dituk, bai, baina zorionez edota zoritxarrez ezinbestean gorputzetan irakurtzekoak dituk misterio horiek. Garbi gera dadin hemezortzi aldiz ere esan beharra baldin badut, hemezortzi aldiz esanen diat. Amodioaren misterioak arimarenak dituk, eta gorputzetan irakurri beharrekoak. Erdi Aroko eskolastikoez iradoki

zioaten aburu horri, baina horren kontra bat baino gehiago jeikitzen duk han-hemenka. Eta ekuazio hau egindakoan, hau duk, Amodio=Literatura, Gorputza=Liburua, azter dezagun hire arazoa. Zenbat pertsona ez ote da bizi irakurri gabe? Zenbat ote liburu batekin? Zenbat irakurri amorratu ote? Hi irakurketa haundiko pertsona haiz, *Circulo de Lectores*-i hilabetero zintzo-zintzo eskaera berri bat egiten diotenarikoa, dudarik gabe eta besterik gabe. Borgesek zioenez, liburu bat baino ez dago. Liburu horretan dena duk idatzita. Non ote liburu hori? Batek zekik. Hala ere pentsatu behar duk hire pasako amodio horiek, uso peregrinoak balira, liburu unibertsal horren irakurketak baino ez direla. Amodio hilezko hori ez balego, ez lukete zentzurik izanen irakurketa horiek.



Menta etxaldean zazpi laborari instalatuko dira.

LUTXI FOURCADE

GFA laborantzako lurak kudeatzeko taldeak kapitala gehitzea erabaki zuen joan den larunbatean, Irulegiko etxaldea erosteko. Hamalau hektarea erosiko ditu taldeak, Safer lur jabegoaren ibilmoldea kudeatzen duen elkarte publikoak baimena ematen badio, eta zazpi laborari instalatuko dira bertan. GFA taldea duela hamar urte sortu zen Ipar Euskal Herrian, laguntza emateko lurrik gabe dauden laborariei.

Lurak ez dira zatikatuko

LUTXI FOURCADE / IRULEGUI

GFA laborantzako lurak kudeatzeko taldeak Irulegi kaskoan dagoen Menta etxaldeko lurten erosteko asmoa du. Joan den larunbatean, urteko biltzar nagusia kari, bildutako kideen gehien-goak xede hau adierazi zuten kapital gehitzearen printzipioa bozkatzuz. Ondoren, bigarren etapan sartuko da proiektua, Safer, departamenduko lur jabegoaren ibilmoldea kudeatzen duen elkarte publikoak bere adostasuna erakutsi behar baitu orain. Lurak salgai direnean, erakunde publiko honi dagokio eroslea hautatzea eta teoriar laborantzari dedikatuak diren proiektuei lehentasuna eman behar die elkartek. Datorren urtarrilaren 24an egingo duen bilan, GFAREN erosteko proposamena aztertuko du, eta baimena ematen badio, hilabete bukaeran diru biltzea abiatuko du taldeak behar diren 340.000 liberak aurkitzeko.

Ez da lehen aldia GFAk sustengatzen duela laborarien proiektuak Nafarroa Beherean. Taldea sortu zen iparraldean 1980an eta hamar urtez 9 laborari instalatu ditu Ipar Euskal Herrian, azken planteatzea duela hiru urte egin baita Lakarrin (Zuberoa). Aldi oroz, printzipio berarekin ibiltzen da taldea. Etxaldea erosteko proposamena egi-ten dio elkarteari instalatu nahi

duen laborariak, gero eta garestiago diren lurten zaila baita diru zama erraldoiak biltzea. GFAk lurak erosten ditu; etxea, aldiz, laborariaren esku dago.

1988an egin zen inkestaren arabera, agertu zen bazirela nonbait han 3.600 etxalderen

nagusiak 50 urtez goiti zituztenak. Gaur egun, gehienak erretretan sartuko direnean, 1.000 instalazio baizik ez dira izan eta 2.000 etxalde baino gehiago husten ari dira edo segida arazoak dituzte. Etxalde gehienak auzoen artean partikatzen dira, eta in-

stalazioak ikusteko ordez ondoko etxeak handitzen dira. Joera honi aurre egiteko, GFA sortu zen laguntza emateko instalatu nahi duten laborariei, funtsezko arazoa diruarena baita. Lurak erosteko dirua biltzen du GFAk aurrezki publikoari deia egin

eta 360 liberako akzioak saltzen ditu. Ondoren, laborariak alokatuko ditu lurak taldeari eta geroan, nahi badu, akzioak berriro erosteko posibilitatea izanen du jabea izateko.

Duela urte bat, Menta etxaldea salgai zegoela zabaldu zenean, osorik atxikitze gogoa adierazi zuen lurten jabeak. Bestalde, zerbait egitekotan nahi zuen proiektu kolektiboa muntatutzea denen artean, eta Irulegiko ardo kooperatibaren kide izanik, bertako arduradunekin proiektua aipatu zuen. Mahasti landatzeko proiektua proposatu zien kooperatibak ondoan dauden laborariei eta eztabaidak izan ondoren zazpi lagun proiektuan sartu dira. Bostentzat instalazioa izanen da, ez bakarrik mahastigintza baizik eta hazkuntzaren ekoizpen osagarriarekin. Batek 1.5 hektarea hartuko du lur ibiltzeko, eta zazpigarrenentzat mahasti ekoizpenaren handitzea izanen da.

Mahastigintza proiektua 11 hektareatan hedatuko da. Jadanik hiru landatu zituen lehengo jabeak eta lau hektarea landatzeko asmoa dute datorren primaderatik. Ondoko urtean, espero dute baimena izatea beste lau hektareak landatzeko. Alabainan, ez liteke sobera arazorik izan behar sotoko arduradunen ustez. Hala nola, aurten kotak banatu dituztenean, lau hektarea atxiki zituzten Menta etxalderentzat, proiektu hau bazelako. Datozen urteentzat, berdintsu izanen dela espero dute, nahiz eta kotak ez diren oraindik finkatuak. Aurten Baino gehiago izan daitekeela 1996an usté dute, nahiz eta banaketa ez den egina. Hala ere, espero dute proiektuak finkatutako helburua ahal bezain laster lortuko dutela.

GFARI dei egin zuten laborariek kooperatibak sustengatzen zuelako proiektua baita ere, etxaldea puskatzeko partez, bat atxikitze aukera zela eta.

Menta etxea


L. F. / IRULEGI

Garazitik abiatuz Baigorriara joateko, Irulegi herria pasatu eta aldapa igo behar da Baigorriko harana ikusi baino lehen, mendien artean. Lehen etxeak urrun agertzen direnean, bide hertsia daukazue ezkerrean, mendialdera. Oihaneko urzotegiak eskuin utziz, etxe berri batzuk bide bazterrean ikusiko dituzue eta urrunago, ofizialek arraberritzen dituzten bi etxe zaharrak agertuko dira. Menta etxea.

Etxearen leihoak itxirik daude, jabeak berarentzat atxiki baitu. Ondoko eraikuntza zaharrean langile batzuk, xinaurriak iduri, lanean ari dira karraskan. Irulegiko sotoaren jabetasuna bilakatu da, Baigorriko eraikuntza txiki-kegi zelako ekoizpen osoa aterbetzeko. Nahiko zaharra zela eta, obra handiak abiatu dituzte. Tei-

latua egin ondoren, barneko lanak hasi zituzten, toki zabal hau ahal bezain fite baliatzeko.

Etxeak bizi berria abiatuko du datozen hilabeteetan, nahiz eta istorio luzea duen jadanik, beste aktibitatek ezagutu baitzuen. Hots, duela hamar urte haraneko gazte batzuek Irulegi Irratia abiatu zutenean, Menta etxetik altxatu ziren lehen bozak. Egunez eta gauez, irratiko langile, animatzaile eta teknikariek etxeko bidea hartu zuten, auzoa animatuz. Lehen emankizunak zabaldu ondoren toki xoragarri honetarik, lekua hustu zuen irratia hirira joateko. Duda handirik gabe (ez baita beste eroslerik azaldu oraingoz) etxaldeko 15 lur hektareak erosiko ditu GFAk datozen hilabeteetan. Horiatarik hamaika mahastietarako izanen dira, eta hiru hektara pentze eta hektarea bat oihan atxikiko dute.



GFA elkartea duela hamar urte sortu zen.

L. F.

«Jarrera ona dago turismoaren inguruan»

A. BARANDIARAN
/ AURIZBERRI

Atzo aurkeztu zen Ariben (Aezkoa) Nafarroako Erdi-Ekialdeko Pirinioetako Kontsorzio Turistikoa, eta urte honetarako estreinako asmoak azaldu ziren. Bertizkoaren ondotik bigarrena dugu Nafarroan, baina ez da, antza, azkena izango. Jose Felix Martinez izendatu zuten duela bi hilabete lehendakari.

hemengo jendeak beti badi-tuela erreparoa gauza hauekin, hasteko giro polita sortu dela uste dut.

EGUNKARIA.— Hala ere, badira hutsak, bai arlo pribatuan bai publikoan.

MARTINEZ.— Udalen artean gehienak daude sartuta, aipatu nahi ez dudatan baten bat kenduta. Erakunde pribatuen artean denetarik dago. Kanpinen artean ia denak gaude, eta hotelen artean oso handia da ko-

da oso homogenoa. Honek arazoak sortuko ditu.

MARTINEZ.— Oso eremu zabala da, eta badira desberdintasunak, baina nik uste dut horrek aberastasuna emango diola erakundeari. Goi-eremuak klima hezea dauka eta behekoak, aldiz, lehorragoa. Hori dela eta, hona etorriko denak izanen ditu aukera asko, eta hori ona da. Hasieran izan ziren arazoak mugak zehazterakoan, baina azkenean denak

dagokienez non daude behar handienak?

MARTINEZ.— Alderdi honek oso komunikazio txarrak ditu, oso konplikatua da, eta hori hobetzea funtsezkoa da. Halaber, lokal guztiek kalitatea lortzen ahalegindu behar dute eta, nahiz eta oso egoera txarra ez izan, hobetu daiteke. Beste tokitan, jende pilaketarekin, galdu egin da behar den kalitate puntu hori, eta hori ez daiteke hemen gertatu.

EGUNKARIA.— Hori guztia lortzeko baliabide nahikorik izango al du kontsorzioak?

MARTINEZ.— Hori izango da borrokarik handiena. Nafa-



Jose Felix Martinez Erroko Udaleko zinegotzia da.

ALBERTO BARANDIARAN

EGUNKARIA.— Kontsorzioa Cederna-Garalur elkartearen eta Nafarroako Gobernuaren ekimena izan da. Ideia gauzatu baino lehen ikusten zenuten horren beharra inguruan?

JOSE FELIX MARTINEZ.— Hemen lanean ari garen gehienok elkartuta gaude nola edo hala. Baina produktu bera saltzen dugu, eta gehiago koordinatu beharra genuen. Esate baterako, Erroibarren ari ginen ibilaldiak prestatzen jendearendako, eta Aezkoan, hemen ondoan, berdin. Jakina, hori elkarlanean egiten bada, denok irabazten dugu, hona etortzen dena Errokarira edo Aezkoara joan daitekeelako egun berean. Horregatik sortu zen kontsorzioaren ideia: udalek ongi hartu dute, eta erakunde pribatuek ere bai, gora-beherekin. Gainera, kontuan hartuz

purua. Jatetxe eta ostatuen artean jaisten da kopurua, eta komertzioen arloan da txikiena partaidetza. Landetxeak ere oso gutxi dira, baina arazo bat dela medio, eta hori konpondu beharko genuke luze gabe.

EGUNKARIA.— Heldu den astean zabalduko da Fitur Turismo Feria, eta zuendako goiz samar heldu bada ere, han egongo zarete. Zertan ari zarete orain lanean?

MARTINEZ.— Jakina, daukaguna gutxi izanik ere, ferian egonen gara, baina batez ere barrura begira. Hau da, gure bazkideek eta hemengoek ikus dezaten kontsorzioa martxan dagoela, ferietan dagoela, eta ekonomikoki onuragarria izan daitekeela.

EGUNKARIA.— Kontsorzioak eremu zabal askoa hartzen du bere baitan, eta eremu hori ez

nahiko ados gelditu dira.

EGUNKARIA.— Turismoak beti sortzen ditu eztabaidak, eta zona honetan badira adibide ugari. Nola hartu du jendeak kontsorzioaren ideia?

MARTINEZ.— Hemengo jendeak jarrera ona du turismoaren inguruan, etekin handienak sortzen dituen jarduera delako. Gauzak egiten ari dira, inbertsioak, eta gogo onez hartzen ditu bisitariak. Badira arazoak zenbait garaitan, dena jendez leporaino betetzen deanean. Orduan muga batzuk —ez debekuak— jarri beharko genituzke, mundu guztia egun gutxi batzuetan etortzen delako. Horregatik, kontsorzioak betebeharrak nagusi izan beharko luke gauzak apur bat zuzentzea, jendeak nahi duen guztia, neurririk gabe, egin ez dezan.

EGUNKARIA.— Azpiegiturei

«Kontsorzioaren eremua oso zabala da, eta badira handiak, baina horrek aberastasuna emango dio».

erroko Gobernuaren laguntza izango dugula uste dugu, eta hori bereziki beharrezkoa izango zaigu lehendabiziko urte honetan. Inbertsio handiak izango dira orain —60 milioi pezeta inguru—, eta ezin dira elkarre pribatuak hasieratik izutu. Emaitzak ikusi behar dira hasieran, gero jendea animatu egingo delako.

EGUNKARIA.— Zein izango da kontsorzioaren eragina, zertan lagunduko du zona hau garatzen?

MARTINEZ.— Inguru hau ordenatu egin behar da, arau batzuk jarri. Eta hori egin behar da ez herriz herri, baizik eta ingurua oso-osorik kontuan hartuta. Sortu behar dira zerbitzu komunak, eta horretan kontsorzioak lagun dezake, saihestuko duelako herrien eta administrazioen arteko borroka horiek azpiegiturak lortzeko. Adibidez, orain badira tokiak gauzak egiteko, baina ez daude alternatibak. Osotasunean planifikatzen bada, errazagoa izango da hori.

Jose Felix Martinez

PIRINIOETAKO KONTSORZIO
TURISTIKOAREN
PRESIDENTEA



SOSLATA

Erron zinegotzi

Pirinioetako kontsorzio turistikoko lehen presidente izendatu zuten duela bi hilabete Jose Felix Martinez, Erroko Udaleko zinegotzia eta Aurizko kanpinaren jabea. Hain zuzen ere, erakunde publiko zein pribatuetako ordezkaria izateak pisu handia izan zuen azken erabakian. Betebeharrak «polita» izan daitekeela dio, baina hasierako buruhausteak franko direla azpimarratu du. «Hamazazpi urte daramazkit udal erakundeetan, eta 13 kanpinarekin. Nekatu samar nago lan honekin, eta ilusio handia jarri behar da». Lokal turistikoaren jabe izateak animoak ematen dizkio gauzak egiteko, baina elkarlanean aritu beharraz dihardu etengabe.

NOSKI JATOR

© Zaldí ER02

THE PRISON. THE PRISONERS. THE ADISKIDEARI GORANTZIAK....

